

EGUNKARIA

ANDER GILFNEA



Sei milioi t'erdi litro sagardo zain

Txotx denboraldia bihar hasiko bada ere, Jose Mari Bakero Barcelona taldeko jokalaria —argazkian Petritegi sagardotegian— zabaldu zuen atzo aurtengo sagardo berriaren lehen txiria. Astigarragako (Gipuzkoa) sagardogileek atzoko aurkezpenean aurreratu zuten, sagar uzta «oso heldua eta azukre askokoa izan da»; beraz, kalitate handiko sagardoa dastatu ahal izango dela iragarri zuten. Guztira 9.000 tona sagar erabili dituzte sagardogileek sei milioi t'erdi litro sagardo egiteko, sagardogileen elkarteko lehendakaria den Bereziartuak emandako datuen arabera. / 9